

## Donostian, 2002.eko maiatzaren 31n

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,  
Henrike Knörr, buruordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,  
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,  
Patxi Altuna,  
Jean Louis Davant,  
Andolin Eguzkitza,  
Patxi Goenaga,  
Andres Iñigo,  
Emile Larre,  
Juan Mari Lekuona  
Frantzisko Ondarra,  
Txomin Peillen,  
Pello Salaburu,  
Juan San Martin  
Ibon Sarasola,  
Jose Mari Satrustegi  
eta Piarres Xarritton, euskaltzainak,  
Jose Luis Lizundia idazkariorde-  
-kudeatzailea,  
M. Gorrotxategi Onomastika  
batzordearen idazkaria (1.1. gaien)  
eta Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Aka-  
demiaren Donostiako ordezkartzan, ez-  
kerreko zutabearen ageri diren euskaltzai-  
nak bertan direla.

J.A. Aranak, ezin etorririk, bere ahala  
H.Knörri eman dio.

### *Aurreko batzar agiria onartzea*

Peillenen eta P. Salabururen ohar- zu-  
zenketekin, aurreko bileraren akta onar-  
tu da.

### *Omenaldiak*

Euskaltzainburuak J. San Martin eta J. M.  
Satrustegiren omenaldien berri eman du,  
bai eta. San Martin eta Arana euskaltzai-  
nek izandako istripu-ezbeharrena ere bai.  
P. Altunak ere ezbehar bat izan duela  
azaldu digu. Geroago, ordea, J. San Mar-  
tin bilerara heldu eta ongi etorri esan  
zaio.

## *1. Hizkuntza arauak*

### *1.1. Onomastika*

Nafarroa Behereko Herri izendegia (3. zerrenda).

Hasteko, A. Iñigok erabakitzeke gelditu ziren bi izenei buruz txosten bat presta-  
turik ekarri eta, euskaltzainen artean banatu ondoren, irakurri egin du: *Izenen hurren-  
kera eta zeinu diakritikoen erabilera toponimia nagusian* izenekoa, kasu horietarako  
irtenbide-proposamenak eginez.

Xarrittonek esan du ez dela egia Bastida herria Arberoakoa denik, eta berak Baio-  
nan agiri batean ikusi duenaren arabera hobe litzatekeela Bastida Amikuze.

Andres Iñigoren idazkiaz, Beñaten ustez, bada hor gauza bat oso argi ez dagoe-  
n:bide-seinalearen eta ohiko idazkien arteko bereizketa.

Andolinek Xarrittoni itaundu dio ea gaskoiek nola esaten duten, erantzuna *Clairance* izanik. Galdetu egin du, halaber, ea iparraldekoek *Bastida Amikuze* onartuko luketen. Beñatek eta Xarrittonek ongi iritzi diote. Pello Salaburuk ez du ikusten bereizketa egin beharrik.

Lizundiak arazo hau nazio-ikuspegi batetik bereiztu beharra dakusa, kasu konkretuetan forma laburra erabilgarria izan arren. Bastida herria Arberoakoa ez dela esan denez, gogoratu du badirela antzeko kasu batzuk ere: *Maia del Baztan* deritzona, adibidez, berez Amaiur Baztango udalekoa oraintsura arte izan ez arren.

Mikel Gorrotxategik: azaldu du izen bikoitz horiek toponimoa nahitaez bereizi behar den kasuetan soilki erabili beharko liratekeela, baina ez behar ez denean. Bestalde, Lizundiak esandakoari, Durango ere ez dela inoiz Durangaldekoa izan gaineratu du.

J. M. Satrustegik gogoratu du arazo hau lehenbiziko aldiz duela hogeita hamar urte planteatu zela eta urte hauetan ehundaka kontsulta izan ditugula Hegoaldean. Aspaldiko urteotan administrazio aldetik guk ofizialtasuna izan dugunez, jadanik hegoaldean tradizio nabarmena sortu da eta, malgutasunez jokatu arren, Iparralderako ere lege orokor berbera finkatzea baliagarria izan daiteke. Xarrittonek galdetu du ea *Lekunberri* biak bereizten diren.

Andres Iñigok esan du berdin diola *Bastida Arberoa* zein *Bastida Amikuze* eta kontua toponimo biak argi bereiztea dela. Mitxelenak gauzak orokorrean hartu behar direla esan zuela gogoratu du, ofizialtasuna zetorrerako nahasbiderik ez izateko. Bere ustez, beti irizpide bera erabili beharra dago, nahiz eta kasu bakoitzean izen biak jarri behar diren ala ez ikusi behar.

Beñat Oihartzabal irizpidearekin bat dator, baina Bastidaren kasuan ez du uste besterik behar duenik. Jean Haritschelharrek gogoratu du, edonola ere den, agintariak dutela hor azken hitza. Juan San Martinek esan du Eibarren ere ba zela beste *Bastida* bat.

P. Salaburuk proposatzen du Iparraldekoari *Bastida* utzi eta Hegoaldekoari *Bastida Errioxa* esatea. Lizundiak nazio-zentzua eskatu du, hegoaldekoek ez baitute errurik iparraldean oraindik ofizialtasunik ez egoteagatik. Berak egindako txostena banatu du: *Izen bereko herri izenen bereizketa, erakunde administrazio ikuspegitik*, izenekoa. X. Kintanak Pello Salabururen soluzioa logikaz ona dela esan du, baina lehenbaitasun-arazoak sor litzake, izen bereko herrietako biek izen bakarra gorde nahi luketelako, lehenbaitasuna nori emanen zaion ezin erabakiz, Bestalde, herri-tradizioak kasu horietan betik bi izen erabili direla erakusten digu, *Lutxana Erandio / Lutxana Barakaldo* bezalako kasuek erakusten dutenez.

E. Larrek *Bastida Klerantza*-ren alde egin du. Beñatek galdetu du ea Getaria biak, horko elizak etabar nola azzaltzen diren. Iñigok problema bere osotasunean hartu behar dela esan du, arazo honi buruzko kasuistika izugarria baita. Kasu berean diren *Lasarte*, *Artea* edo *Beloc* toponimoen inguruko anekdotak aipatu dituzte H. Knorrek, X. Kintana eta P. Xarritonek. Salaburuk helburuak argi ikusi nahi ditu, izenok zertarako diren argituz. *Bastidaren* forma datorren hileko bilkuran finkatzeko utzi da.

### 1.1.1. Hiztegi batua: ahuakate-aitzitik zerrenda

Pello Salaburuk 1.3. txosteneko oharra irakurri ditu, orain arte egindakoaz. Aurkituriko kontraesan batzuk ere aipatu ditu, batzarrean eztabaidatu eta konpondu direnak.

Andres Urrutiak ez dakusa garbi proposamen berriak eztabaidarako onartu edo gaitzesteko irizpidea. Eztabaidaren ondoan hau erabaki da: hemendik aurrera ohargilek bi eratako oharrak egitea: batzuk zerrendari lotuak, hurrengo batzarretan ikustekoak, eta besteak proposamen teknikoak eta nazioarteko hitz berriak, geroago ikusiko direnak.

**Aire-bide** hitzetik **aintzintoa**n-era arteko berbak aztertu eta erabaki dira..

2etan bazkaltzera joateko etena egin da.

\* \* \*

Arratsaldeko 4,15etan bilerari segida eman zaio. Hasieran eskuarteko gai batzuk ukitu dira.

Pedro Pablo Astarloaren 250. urteurrena dela eta, Euskaltzainburuak horren ospakizunen programa aurkeztu du.

Henrike Knorrek *EITBko kargualdia utzi ondoren Euskaltzaindiari* txostena irakurri du, hizkuntzari dagokionez, EITBren programetan nabari den zabarkeria salatuz. Bide berean, J.M Satrustegik eta X.Kintanak ere Satrustegik zerbait erantsi dute.

## 2. *Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Aginteen hitzarmena*

Puntu hau tratatzeko, Euskaltzaindiaren ordezkariak eta herri-aginteen ordezkariak Euskaltzaindian maiatzaren 17an bildu zirela jakinarazi da. Andres Urrutiak hala eskaturik, bilera hartan ez Miren Azkarate ez Patxi Goenaga egon zirela egiaztatu eta aktan jartzea onartu da.

Bileraren nondik norakoa Juanjo Zearretak azaldu du puntuz puntu, behar diren xehetasun guztiak eskainiz, eta bereziki 8. c puntuari buruzkoak. Irailaren hasierarako Euskaltzaindiak bere behin-behineko aurrekontuak aurkeztu behar dituzenez, sailburuei orri bana igorri zaie, lehenbailehen nork bere aurrekontua aurkez dezan, horiekin Euskaltzaindiak bere aurrekontu orokorra prestatu ahal izateko.

Pello Salaburuk uste du hitzarmena luzeegia dela eta, edozein kasutan, lehendakariak sinatu beharko lukeela, Eusko ikaskuntzarekin egin duenez. Protokoloko programak birdefinitzea proposatzen du. Adibidez, 3.3.2. puntuak dioenez (*remitirá a los poderes públicos ... informes semestrales...*) hori ez dela errealia uste du.

Euskaltzainburuak beste hitzarmen bat negoziatu behar dela esan du, oraingoa salatu aurretik., finantziario iturri ezberdinez baliatuz. Beñat Oihartzabalek bestelako harremanak ezarri beharko liratekeela uste du, diru-laguntzak, adibidez, atalka banatuz, adibidez ohiko gastuak Gobernuaren kontura eta proiektuak diputazioek finantziatzeko.

Pello Salaburuk hitzarmenaren arazoa, oro har, lehendakariarekin negoziatu beharra dakusa. Lizundiak esan du industriak, irakaskuntzak etab. lobby berezia osatzen dutela, Euskaltzaindiak ez daukana. Gure egitura politikoa anitzak ez digu errazbiderik eskaintzen.

Andres Urrutiak galdetu du ea Pelloren proposamenak ez ote digun bestelako proiektuetarako kalterik ekarriko. Hori saihesteko, beste eranskin hau jartzea proposatu eta onartu da: 4.3. puntuaren bukaeran: *No obstante, cada institución podrá contri-*

*buir, si lo desea, con una cantidad superior. Las cantidades entregadas en este concepto, no perjudicarán la financiación de otros eventuales proyectos o de proyectos ya en marcha.*

Andolin Eguzkitzaren ustez beharrezkoa da Jaurlaritzak Euskaltzaindia proiektu estrategikotzat onartzea, diru-partidetan bereziki kontuan hartuak izan gaitezen. Bide berean galdetu du ea Euskaltzaindiak ez ote lukkeen nolabaiteko estrategia prestatu behar. Ongi ikusi da, baina hori denboraz antolatu beharko litzatekeela esan da.

Jean Haritschelharrek azaldu du aldaketa horiek onartzen saiatu beharko dugula, baina, beti ere, negoziaketa honetan dugun lekua gogoan izanda. Aho batez onartu da. Azken proposamena biribiltzeko, herri-aginteekin Bilbon beste bilera bat egitea erabaki da.

Bestalde, Euskaltzaindia Iruñeko Udalarekin, Etaio jaunarekin mintzatu dela jakinarazi da, eta, borondate onaren erakutsitzat sariketaren epaimahairako ordezkaria ere bidaliko zaiela, haiek gurekin iazdanik duten diru-zorra ere gogoratzuz.

Bilera amaitzean, Argitalpen eragilearen ezintasunagatik, Eragile teknikariak baztertuen artean ondoko liburuak banatu ditu: *Ermua-Eitzaga: leku-izenak*, Onomasticon Vasconiae bildumako 22. liburukia, Ermuko Udalak eta Bizkaiko Foru Diputazioaren Kultura Sailak babestua, eta *Eusker*a Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala, 2001,2.

Bilera 6,38etan bukatu da.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Xabier Kintana